



OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2025.08.07

Ordua: 16:30

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. 4/2025 aurrekontu aldaketa. Hasierako onespena.
3. Katastroko Balorazio Ponentzia berrikuspenaren proiektua. Hasierako onespena.
4. Alkate Ebazpenak.
5. Eskaerak eta galderak.



ARANTZAKO UDALA

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.

2025eko uztailaren 3ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

2. 4/2025 AURREKONTU ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkari-kontuhartzaileak 4/2025 aurrekontu aldaketa egiteko 2025eko abuztuaren 1eko txostenean xedaturikoa azaldu du.

4/2025 ALDAKETA: KREDITU BEREZIAK (ATXIKITAKO FINANTZAKETA DUEN DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOTIK)

SORTUTAKO GASTUAK (kreditua gehituko zaizkion aurrekontu aplikazioak)		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 3232 6320001	ESKOLAKO BAINUGELA BERRIAK	18.800,00 €
GUZTIRA		18.800,00 €
FINANTZAZIOA		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 8701001	AFEKTATUTAKO BALIABIDEEN DIRUZAINZAKO GERAKINA	18.800,00 €
GUZTIRA		18.800,00 €

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- 4/2025 aurrekontu aldaketari hasierako onespena ematea.
- 2.- Aurrekontu aldaketaren akordioa udaleko iragarki taulan argitaratzea 15 egun NATURALETAN bizilagun eta interesdunek hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.
- 3.- Jendaurreko epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, behin betikoa egingen da aurrekontu aldaketa.

3. KATASTROKO BALORAZIO PONENTZIA BERRIKUSPENAREN PROIEKTUA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak azaldu du TRACASA enpresak Arantzako Katastroko Balorazio Ponentziaren berrikuspenaren proiektua egin duela. Horrela bada, 2025eko uztailaren 24an Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren eta Ondare Zergen Zerbitzuak jakinarazi du proiektua aztertu duela eta hauen baloreen kalkulua egin duela.



ARANTZAKO UDALA

Ondorioz, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 36.4 artikuluekin bat eginez, Arantzako Katastroko Balorazio Ponentziaren berrikuspenaren proiektuari hasierako onespena ematen ahal zaio, hala badagokio, eta jendaurrean paratu.

Osoko bilkurak AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Arantzako Katastroko Balorazio Ponentziaren berrikuspenaren proiektua hasiera batez onartzea.

2.- Katastroko Balorazio Ponentziaren berrikuspenaren proiektuaren iragarkia udaleko iragarki taulan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jendaurrean paratuz 20 egun baliodunean, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Jendaurreko epean, Balorazio Ponentziaren berrikuspenaren proiektua interesdunen eskura egonen da udal bulegoan, bidezkoak iruditzen zaizkien alegazioak, kexak edo oharra aurkez ditzaten.

4. ALKATE EBAZPENAK.

2025eko 109tik 126ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

5. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 17:00 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,

**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**

Saturnino Larralde Ibarrola

Nagore Madariaga Iriarte